




5. KANALAK


- SALMENTA- ETA BANAKETA-KANALAK

Gure enpresak eskaintzen dituen produktuak eskuratzea oso erraza da, modu desberdinak daudelako hau egiteko. Bezeroek **erabilerraztasuna** izango dute eta ez dute arazorik izango.

→ Alde batetik, badaukagu **denda fisiko** bat, hau da, kaleko denda bat. Hona iristea oso erraza da, Bilbon dagoelako, Bizkaiko hiriburua, zehatz mehats Alde zaharrean, Santiago plazan. Autobusa, trena edo metroa har dezakezu ailegatzeko edo bestela mapa baten bidez gure denda aurki dezakezu. Gainera kaletik ibiltzean gure denda desberdinu daiteke duen itxuragatik, kanpoaldean beirarentzako kontainer-ontziak ikusi ahal direlako. Denda honetan **harreman zuzena** dugu bezeroekin, haiek direlako gure dendara etortzen direnak eta guk gure produktuak saltzen dizkiegu, beraz ordainketa erosten den momentuan egiten da.



→ Beste alde batetik, denda fisikoaz gain, badaukagu beste komunikazio-kanal mota bat gure bezeroekin harremanetan egoteko; **On line denda**. Fisikoa ez den denda honetan, bezeroek gure produktuak aztertzeko aukera izango dute haien etxetik, ez direlako mugitu behar. Haien ordenagailuen edo mugikorren bidez gure web ofizialera sar daitezke, gure produktuak ikusi eta haien gustukoena aukeratu eta erosi. Hala ere, garraio-enpresak erabili ordez, gu geu izango gara bezeroei produktuak eramateko arduradunak, denbora-tarte batzuk errespetatuz. Dendan fisikoan bezala, ordainketa erosten den momentuan izango da, ez banatzailea iristen denean, baizik eta On line dendaren bidez, gure produktuan klika egitean.






El Regato Ikastetxea: Paula Alonso, Naroa García, Andoni Goikoetxea, Leire Gojenuri eta Iratxe Lastra

Beraz, laburbilduta, gure enpresak erabiltzen dituen bideak bezeroekin harremanetan egoteko bi dira: **denda fisikoa eta On line denda**. Pertsona bakoitzaren arabera izango da zeinen bidez erostea, baina gu bi modu hauek eskaintzen ditugu bezeroek erraztasun gehiago izateko. Hau guztiaz gain, bai gure denda fisikoaren bidez, bai gure On line dendaren bidez, gure enpresaren **telefonoa** eta **e-maila** eskainiko da, bezeroekin harreman zuzena mantentzeko eta arazoren bat egotekotan, komentatu ahal izateko.


- KOMUNIKAZIO-KANALAK

Baita ere, badaude beste bide batzuk gure produktua ezagutzera emateko, adibidez sare sozialak, hauen bidez gure produktuen **publizitatea** egiteko. **Instagram**, **twitter** eta **Facebook**-eko kontu bat daukagu eta honetan gure produktuei buruzko informazioa eskaintzen dugu eta honen helburua, pixkanaka-pixkanaka gure enpresa hedatzea da.



INSTAGRAM:@birbeiratu

<https://www.instagram.com/?hl=es>



FACEBOOK: Birbeiratu Elkartea

<https://www.facebook.com/>



TWITTER: @birbeiratu

<https://twitter.com>

Informazio gehiagorako edota gurekin modu zuzenagoan kontaktuan jartzeko: birbeiratu@gmail.com